



BASILIO BIAIN

AZKENENGO PERRATZAILLIA

Ganaua gure herrixan ugari ebillen garaixa eztago oso urrin. Orduko testigu batekin berbalditxo bat egitteko aukeria euki dogu; urte askuan ganauen

hankak zaindduaz, bizimodua atara dauen oñatiarra. Paulo perratzailliaren semia, herriko azkenengo perratzailia, Basilio Biain.

- Zela hasi ziñan perratzaille lanetan?

Aitta neukan perratzailia eta aittari lagunketara faten nintzan ni. Txiki-txikittatik, zortzi bat urterekin, zapatu goizetan permisua eskaketan neben eskolan astuairi eustera fateko, zapatutan aittak lan asko eukitten eben eta.

- Izatez baserritarra zara?

Kalekua, kalia jaixo eta hazi, eta Mendiko kalia ibillitakua, aittajunak han *Kuba* tabernia eukan eta.

- Aittarekin lan egitten zeben garaixan, zuen zeregiña zer izaten zan?


Ba, perraitten eta errementerixan.

- Errementerixan?

Bai, perrak egin, baserriko ariak zorroztu, baita argiñen eta banastagiñen kutxillak be, kateiak ar re -

Lan gehixen gerra ostian izan geben, orduan idixak piñu-bajaitten ibiltten ziran eta. Gerra aurtxuan 500 idipareraiño kontau neben.

glau eta halakuak egitten gittuan. Perrak, kaballerixenak etxian egitten gittuan, ganauenak, berriz, kanpotik ekarri, Motrikutik, honeik lan haundixa eukitten ebein guretako eta; belarrixa han soldaitten otzain perriari.



PEUGEOT-TALBOL


OÑATI K. Elk. GARAJEA

Goribar auzoa, z/g. Tfnoa: 78 13 50 OÑATI



ILEAPAINDEGIA

Euskadi Etorb. 10 behea
Tfnoa: 78 09 60. OÑATI



Gaur egun etzan perratzaille lane-
tik bizitterik egon-
go. Gehixago
kobraiten da,
baiña ixa ganau-
rik eztago.

Orduan normalian perraitten ez gebenian, sutegixan lanian; auspuarekin makinatxo bat lan egin-
ddakua naiz.

- Perratokixa nun euki zebein?

Nik beti ezagutu dot Patrua kalia; gure aittak han euki eben eta nik be bai. Aittaren aurretik perratokixa Tetuanen eguen, Xipri Zufiriarena, eta gure aitta honekin ikasten ibilli zan; gero aittajunak Bilbora bialdu eben ofizua hobeto ikastera.

**- Lana perratokixan baka-
rrik, ala baserrittara be mobi-
tten ziñain?**

Baserrittara asko faten nintzan, kurak egittera eta horreik danak. Garai batian oiñez eta bizikletan be moldaitten giñan: paketia egin, bizikleta-kuadruean lotu eta Araotzera; geuk auspo ona, gogorak izan eta fan. Gero Araotzen auzokuak perratokixa ipini ebein eta astian bi aldiz faten giñan hara. Makinatxo bat biaje egin dot behixak perraittera Aska-
zubira be.

**- Baserritan, ganuari eus-
teko zela moldaitten ziñain?**

Perratoki faltan, burdixan, burdira lotzen geben. Burdixari uztarrixa lotuta.

**- Ganauekin sustoren bat
hartutakua izango zara, ezta?**

Behin, mutikotan, perratokixan emun nostan idi batek; kinttadia pagau bihar izaten da; jo bekokixan eta aidian bota ninduan plazuelara; egunetan egon nintzan *grog*i, bekokixa jo ta ebagitta euki neben; orduan garbittu enintzianian!

- Perratzaille lanak dirurik emuten eben?

Ezeben asko emuten, merke egitten zan lana eta. Perria ekarri fabrikatik, ajustau eta ipiñi, konpleto, pezetia kobraiten zan garai batian; errialian be ezagututa nago ni.

Gero lana be asko gastau zan, burdixen orde traktoria hasi ziranian. Ikusi neben ezin zala hortik bizi, eta okasiñua euki nebenian fabrikara fateko, perratokixa itxi egin neben; artian etorten nintzan ordutik kanpora.

- Gehixen ekarten otzuein animalixa?

Bihar haundixena idixak izaten ebein, lan eta inddar gehixago egitten ebeillako. Geldik dague ganauak, normalian eztau izaten perrau biharrik; kuraitteko berriz bai. Pentsau, idixak zortzi perra eruaten ebein bitartian, behixak lau, eta lana egitten ebein behixak baziran sei.

Hamalau urte orduko astua perraitten neben, eta fabrikara, aspertuta gero, 50 bat urterekin pasau nintzan. Perraitteko lanarekin konparauta, fabrikakua "coser y cantar" zan.

- Erremintta askoren biharra izaten zebein?

Begira: *potrua* ganaua lotzeko; atzeko hankak mahaira hartzekua; *tapia* bekorotzik ez deixen mosura bota; *poleia* tira egindda gora jasoteko; *junguria*; *sutegixa*; *pujamentiak* kaskuak bardinketako; muturra lotzekua; aguan operaziñua egittekua; *tenazak* perriaren belarrixak joteko; *mallukak*; *kutxillak*; *limak*...

- Kurak be aittatu dittuzu.

Ebaixak, odoljaitzixak, puzunixia eta babak osaketan gittuan. Lehenengo hirurak erretxiña, trementina eta aguarrasarekin egitten geben unguento batekin; honek sua aguro hartzen eben gero. Babak berriz zahartutako urdaixarekin.

- Gaur egun egongo litzake perraittetik bizimodua atarateko biderik?

Ez; gehixago kobraiten da, baiña bizimodua atarateko beste ganaurik eztago.



ARKAUZ

OPTIKA

Optiko-
Optometrista
Lazarraga, 2. Oñati
Tfnoa: 71 60 63

**ONDO IKUSTEN
BADUZU. HOBE
IKUSIKO DUZU.
ZAINDU ZURE
BEGIAK.**



AMETS TAILERRAK

HERGO karabanen banatzailea
Karabanak. Autokarabanak
Mota guztietako erremolkeak
Urte osoan karabanak aterpean gordetzen ditugu
SALMENTA ETA ALOKAIRUA
Berezano auzoa. OÑATI. Tfnoak: 78 25 92 / 78 19 50